

TALDE-LANAK EKARRITAKO GALDERA

Iker Niño Eizagirre

Donostia

1. Lehen eguna

Ordularia begiratu eta “8:15” jartzen zuela ikusi nuen, ezin zuen izan, klaseak 8:30etan hasten ziren! Azkar batean dutxatu eta ilea bustirik nuela abiatu nintzen korrika eskolara. Nire lehen eguna zen institutuan eta jada berandu nenbilen...

Motxila bizkar-gainean nuela azkar batean iritsi nintzen eskolako sarrerara arnasestuka eta ezinean, ez bainintzen mutil indartsu eta kirolari horietakoa, ni mehea eta txikia nintzen. Iristerako denak geletan zeuden, beraz berriro korri egiteari ekin nion. Horrela nindoala presaka nire pentsamenduetan murgildurik, bat-batean norbaitekin estropezu egin nuen. Irakasle bat ote zen? Zutitu nintzenean inolaz espero ez nuen ile hori luze eta ederreko mutil altu bat ikusi nuen nire aurrean, ni baino zaharragoa eta harroputza zirudien, beraien buruan bakarrik pentsatzen duten horietakoa. Janzkera arraroa zuen, ez zen Euskal Herri inguru-

koa izango. Denbora bat pasa nuen mutila azter-
tzen, zerbait esan zidan arte:

—Zer, ez al didazu botatako liburuak jasotzen
lagundu behar?— esan zidan ilehoriak.

—Ba ba bai— esan nion hitz-totelka.

Eskutik helduta zutitu eta liburuak motxilan
jasotzen lagundu nion:

—Kontuz ibili hurrengoan! Tira, agian nire alde-
an hain txikia zarelako ez nauzu ikusi— nitaz barre
egin zuen modu harroputzean.

Asmatu nuen harroputz itxura zuela esatean.

—Oso barregarria— irribarrea behartu nuen.

—Txantxa bat besterik ez zen, lasai, nola duzu
izena?— gaia aldatu zuen.

—Nik? Lukas.

—Pozten naiz zu ezagutzeaz, ni Steve naiz.

Momentu hartan gogoratu nintzen berandu
nenbilela eta ez nuen denborarik galtzeko mutil
harro batekin hizketan. Esan nion klaseak jada
hasita zeudela eta biok korrika abiatu ginen gelara.
Ezustekoan, biok norabide bererantz abiatu ginen,
zirudienez gela berean ginen. Atea jo genuen eta
irakasleak gustu txarrez atea ireki zigun.

—Zergatik iritsi zarete hamabost minutu beran-
du?— esan zuen tonu desatsegin batean.

—Ba...— hasi nintzen azaltzen urduri.

—Galdu egin naiz gelara bidean eta Lukas nire
egoeraz ohartzean, bere burua eskaini du— moztu
zidan Stevek.

—Tira, lehen eguna dela-eta barkatuta zaudete.

2. Bikotekide ezin hobea!

Lehen klasea bukatu zen, eta hurrengora abiatu ginen. Gela barrura sartu eta esertzera gindoazela, irakasleak Steve eskutik hartu eta arbelean denen aurrean kokatu zuen.

—Ikasleok, hau zuen gelakide berria da— hasi zen aurkezten.

—Steve du izena eta Estatu Batuetatik dator, ondo tratatu, e!

Gela guztia isiltasunean geratu zen horren ondoren zer esan jakin gabe, gero, irakasleak esertzeko keinua egin zion berriari, eta honek eskuin-ezker begiratu eta hutsik zegoen leku bakarra nire ondo-koa zela ohartzean hortxe esertzea erabaki zuen. Steveri begira jarri eta pentsatzen hasi nintzen; Estatu Batuetatik bazetorren, nola menderatzen zuen hain ondo euskara? Tira, familiako norbait euskalduna izango zuen, ala agian klase partikularretara joaten zen. Zergatik ari nintzen hainbeste garrantzi ematen mutil horri? Erakarri egiten ahal ninduen pixka bat? Ez, nik neskak bakarrik nituen gustuko! Horrela ari nintzela irakaslea hizketan hasi zen, horrela nire arreta bereganatuz:

—Bueno, ohikoa den bezala, aurten ere bikoteka proiektu bat egingo dugu, bikoteak nik eginda izango dira, noski. Orain esango ditut— aipatu zuen.

Momentu hartan gela osoa txutxu-mutxuka hasi zen eta tentsio puntu bat nabarmendu zen gelan.

—Mikel Rodriguez eta Miren Aranburu, Lukas Etxebeste eta Steve Bellemore— hasi zen aipatzen.

Izenak aipatzen jarraitu zuen, baina nik ez nion kasu handirik egin, mutil ilehoria besterik ez nuen buruan. Steverekin tokatu zitzaidan lana egitea, ezin nuen sinetsi. Arraroa egiten zitzaidan, baina halaxe zen, berarekin nintzela esatean poztu egin nintzen. Nik nekiela, neskak bakarrik nituen gustuko, baina ongi pentsatuta ez nintzen inoiz mutil batekin ezer egiten saiatu. Tira, agian hala nahi zuen zoriak. Momentu batez mutil batekin egotea nola izango zen fantaseatzen hasi nintzen nire buruan, baina laster batean joan zitzaizkidan fantasiak. Nola nahiko zuen berak nirekin... seguruenik bera ere neskazale amorratua izango zen eta ez zuen nahiko mutil batekin esperimentatu. Alferrikakoa zen bera eta ni lagunak baino zerbait gehiago izan gintezkeela pentsatzea.

3. Prestakuntzak

Lukasekin tokatu zitzaidan lan egitea, hau zen zortea... ez nuen arazorik berarekin batera proiektua burutzeko, baina aukeran nahiago nuen gela-ko neska polit batekin egokitzea eta horrela agian zerbait gertatzea bion artean. Ongi pentsatuta, Lukas aukera ona zen, momentu hartan nire “lagun” bakarra zen-eta. Pixka bat lehenago gure izenak aipatu zituenean Lukasi begiratu nion eta oso arraro ikusi nuen, bere pentsamenduetan mur-gilduta balego bezala, zertan ariko zen pentsatzen?

Benoa, horrek ez zuen axola, orain lana noiz eta non egin erabaki behar genuen. Jolasgaraian patioa harrizko mahai batean eseri ginen biok eta hamaiketakoak jaten genuen bitartean hasi ginen adosten dena. Materiala berak ekarriko zuen etxean baitzuen beharrezko guztia, egiteko lekua ordea erabaki genuen hoberena nire etxea izango zela, izan ere, astean zehar Lukasen gurasoak etxean egoten ziren ordu hartan, baina nirean ama bakarrik egoten zen. Gainera, gu iristerako abiatu beharra zuen lanera.

4. Proiektua martxan...

Esan bezala, ikastola bukatzean atzeko eraikinean elkartu ginen biok, eta Steveren etxerantz abiatu ginen. Bidean zehar ez genuen ezer askorik esan, ez zen gairik atera eta. Bost bat minutu igaro ondoren etxe eder eta handi batera iritsi ginen.

—Hau da nire etxea— esan zidan.

—Oso polita da— erantzun nion gezurretan ibili gabe.

Atea ireki zuen eta barrura sartu ginen biok. Emakume ilehori bat aurkitu genuen aurreko gelan eta iritsi ginela ikustean gugana gerturatu zen:

—Hi Steve and...?— utzi zuen esaldia erdizka emakumeak.

—Lukas— lagundu zion Stevek.

Ilehoriak azaldu zion lan bat egitera gentozela eta gelako lagun bat nintzela, berak biok agurtu

eta azkar batean alde egin zuen lanera. Zirudienez, emakume atsegin hura bere ama zen, eta berarengandik zetorren Steveren ile eder hori!

Bere logelara igo, mahai txiki batean jarri eta proiektua egiten hasi ginen. Berak niri proiektuaren ideia nagusiak azaltzen pasa zuen arratsalde osoa, baina nik ez nion kasu handirik egin, ni, lilurata, bere edertasunari begira nengoen. Pare bat ordutan jada lana amaitua genuen.

—Ni orain dutxatu egingo naiz, beharra dut eta, nahi baduzu irakurri hor dituzun liburu horietako bat, bitartean— esan zidan.

—Ongi da, joan lasai— esan nion.

Eskuoihal bat hartu eta komunean sartu zen. Nik, berak aholkatu bezala, zituen liburuetako bat irakurtzea pentsatu nuen, liburuz betetako apalera gerturatu nintzenean bat hartu nuen ausaz eta hori irakurtzen pasa nituen hamar bat minutu. Irakurtzeaz aspertzean pentsatzen hasi nintzen, begiak itxi eta Steve dutxan irudikatzen, nola dutxako ura bere gorputzetik jaisten zen, nola xaboiarekin bere giharrak igurzten zituen, nola jolasten zuen bere ilearekin... konturatu nintzenerako nire zakilarekin jolasten ari nintzen berriz ere berarengan pentsatzen nuen bitartean. Ez nengoen seguru mutilak gustuko nituen hala ez, baina Steve gustuko nuen, jada ez zen erakargarria zela niretzat, orain obsesio bat zen. Denbora bat pasatu ondoren komuneko kisketa entzun zen eta Steve komunetik atera zen. Eskuoihal bat gerrian besterik ez zuen jantzita! Ni gorri-gorri jarri nintzen eta beste alde

batera begiratu nuen. Halako batean, nire aurrean, eskuoihala kendu eta arropa garbia janzten hasi zen, nik ezin izan nuen bere gorputz erakargarria begiratzea saihestu. Horrela nengoela, Stevek atzera buelta hartu eta begiratzen harrapatu ninduen, ni konturatzean azkar batean begiradaren norabidea aldatu nuen disimulatu nahian. Berak ez zuen ezer esan gertatutakoari buruz, isilik egon ginen eta gaua iristean besterik gabe agurtu eta nire etxera itzuli nintzen. Alde batetik gauzak geroz eta argiago nituen, Steve gustuko nuela, baina beste aldetik lehen baino nahasiago nengoen, berak nik sentitzen nuen gauza bera sentitzen ote zuen? Berari begiratzen harrapatzean ez zen ausartu ezer esatera, haserretu egin al zen? Edo agian nahita biluzi zen nire aurrean?

5. Mezua

Aste bat pasatu zen jada Steveren etxean egon nintzenetik, ordutik ez zidan hitzik ere egin aste osoan eta ni saihestu nahian zebilen. Egia esan, ni ere ez nintzen ausartu lehen pausoa ematera, berarengana hurbildu eta hitz egitera; azkenekoz egon ginen egunean gertatutakoaren ondoren nola erreakzionatuko zuen beldur nintzen. Jolasgaraian beti batera esertzen ginen, baina azkenaldian ez zen horrela izan, Stevek edozein aitzakia jartzen zuen elkarrekin ez egoteko, beraz, bakarrik esertzen nintzen ikastola kanpoan zegoen egurrezko banku batean. Banku hartan nengoela, halako

batean nire mugikorra entzun zen, mezu berri bat iritsi zitzaidan. Steverena zela ikustean urduri jarri nintzen eta mugikorrak eskuetatik alde egin zidan lurrera. Mugikorra azkar hartu nuen berriz; mezua ireki nuen eta hala zion: “gertatutakoari buruz pentsatzen egon naiz, geratu gaitezke pribatuan?”.

Ni oraindik eta urduriago jarri nintzen eta azkar batean “ongi da” erantzun nion. Denbora bat pasa ondoren oraindik irakurtzen ez zuela ikustean hoberena deitzea izango zela pentsatu nuen, hortaz, deitu egin nion:

—Kaixo.

—Epa.

—Irakurri duzu mezua, ezta?

—Bai, noiz geratuko gara?

—Gaur bertan ikastola bukatu ondoren parkean ongi datorkizu?

—Bai ederki!

—Gero arte orduan.

—Agur— moztu nuen deia.

Goiz osoa eman nuen eskolan Steve eta nire artekoari bueltak emanaz, geroz eta gehiago pentsatu orduan eta urduriago jartzen nintzen. Agian ez zen uste nuen bezain neskazalea...

Azkenean bukatu ziren klaseak eta eskolatik irten bezain laster joan nintzen geratu ginen parkera. Leku oso aparta zenez pentsatzen nuen zer-bait kontatu nahi zidala, agian gustuko ninduela. Horrek izugarrizko lotsa ematen zidan eta pare bat aldiz joan ala ez zalantza egin nuen, baina azkenean bizikleta hartu eta parkera abiatu nintzen.

Iristean han zegoen eserita bera bakarrik, zuhaitzez inguraturiko parkean bera eta ni besterik ez geunden. Berarengana gerturatu eta ondoan eseri nintzen. Steve oso arraro zegoen, inoiz baino serio-ago eta betiko txantxak ahazturik zituen.

—Zer gertatzen zaizu?— galdetu nion zerbait kezkatu-rik.

—Ez da ezer.

—Tira, esadazu zer den, oso arraro zaude.

—Arraro ni? Zu zara hemen arraro bakarra!— oihu egin zidan.

—Zer diozu?

—Lukas, aurrekoan aldatzen ari nintzela niri begira harrapatu zintudan.

Ni zer esan jakin gabe geratu nintzen. Harrapatu egin ninduen, hau lotsa! Zer esango nion?

Denbora bat isilik egon nintzen, gero ausartu nintzen zerbait esatera:

—Beno egia da begira nengoela eta gustuko zai- tudala, baina ez da ezer gertatzen gure artean, zuk ez baduzu gauza bera sentitzen errespetatuko dut.

—Gauza bera sentitu? Ni ez naiz zu bezalakoa, zu bezalakoek nazka ematen dute!

Horrek izugarri mindu ninduen eta ez nion bar- katuko, korrika beregana joan nintzen eta bultzada batez lurrera bota nuen. Bera askoz handiagoa eta indartsuagoa zen eta banekien galtzekoak nituela, baina nire indar guztiekin borrokatuko nuen. Lurretik zutitzea lortu zuen eta ni konturatzerako ukabilkada bat eman zidan lurrera botatzea lortuz, gero, ni joka jarraitu zuen odoletan eta ia konorte-

rik gabe utzi arte. Tristeia izan zen hain lagun onak ziren bi gaztek horrela bukatu izana. Han nengoen zuhaitz artean lurrean etzanda, bakarrik, ezin nuela mugitu, odolez eta minez josirik; Steve bertatik joana zen aspaldi. Galduta sentitzen nintzen, ez nekien nor nintzen, non nengoen. Sirena-hotsa entzun zen bat-batean, burua altxatu eta ambulanzia niregana gerturatzen izan zen ikusi nuen azken gauza...